



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko apirilak 6
Ordua: 09:05 – 10:20
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Jose Luis de Valle Duque, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2017ko martxoaren 23an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue? Bozka dezagun orduan.

Bozkatu egin da:
Kontrako botoak:
Batere ez.
Abstentzioa:
Arkaitz San Jose Martinez (1)

Aldeko botoak:
Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

2.- 2016. urteari dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortza onartzea (HHS ekarpenak Koadrilari)

“2017KO MARTXOAREN 29AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA



IKUSIRIK 2016ko martxoaren 28an Idazkaritzak 2016ko ekitaldiko hurrengo kreditua judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.
H.H.S. ekarpenen erregulazioa 2016
Erregistro-data: 2017ko otsailak 23, 596-2 zenbakiduna.
Zenbatekoa 5.054,85 €.

KONTUAN HARTUZ 2017ko martxoaren 28an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2016ko irailaren 28an Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. Hurrengo kredituaren aitortpena onartzea, 2016. ekitaldiari dagokiona.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.
H.H.S. ekarpenen erregulazioa 2016
Erregistro-data: 2017ko otsailak 23, 596-2 zenbakiduna.
Zenbatekoa 5.054,85 €.

BIGARRENA. 2016ko ekitaldiaren Aurrekontuan kargatuta, dagokion kreditua aplikatzea, "Aiaraldea. HHS ekarpenen erregulazioa 2016" izeneko 1622.421.001 aurrekontu-aplikazioaren kontura, 5.054,85 euroko gastuari aurre egiteko, 2017ko egungo aurrekontuan dagokion aldagaketa egin ostean aurrekontu-aplikazioa sortuz, hura ekonomikoki hornituz".

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: bai. Xehetasun pare bat baino ez, batzordean jadanik aipatu ziren zenbait kontu. Jakina, zentzu horretan Koadrilarekin dugun konpromiso bat da, eta gastua onartzea dagokio. Dena den, aipatu nahi dut badirela hondakinen gastuak apur bat ihes egitea eragiten duten bi kontu, eta etorkizun batean horiek ebaztea lortzen bada, batez ere, bietako bat, bada askoz ere hobe litzateke, hots, Artekaleko lurpeko edukiontzien mantenuaren kontua, izan ere, kamioi ezberdin batek pasa behar du bertatik eta gainera erreposoen eta gainerako gaia ere hor dago, eta horrek gastua asko igotzea eragiten du. Izan ere, Artekaleko edukiontzi horiekin soilik gastua 6.000 eurokoa da, hots, bilketa-sistemagatik eta, jakina, kaleagatik, merezi duten arreta berezia izateagatik. Besterik gabe, egin beharreko zerbait da, hori da daukagun sistema, baina tira, bilketa-sistemaren inguruan gogoeta orokor bat egiten bada, bada, ez litzateke kaltegarria izango horri buruz pentsatzea. Eta gero, bada, besterik gabe, obren ondorioz, beste 6.000 euro izanik, egon diren gorabehera guztiak, edo edukiontzien dantza guztia. Beraz, azken batean ez litzateke horrenbestekoa izango obren salbuespena izan ez bagenu, baina tira. Batzordean ere aipatu genuenez, bada hemen ere aipatu egiten dut, besterik gabe.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik kontu bakarra, batzordean esan nuen moduan, Koadrilako ingurumen arloko teknikariarekin bilkura bat egitea gustatuko litzaidake, gehienbat, zer ordaintzen dugun eta zeren arabera ordaintzen dugun azal diezagun, izan ere, niri, oker ez banago, tonako 166 euro ateratzen zitzaizkidan errefuxaren eta organikoaren bilketagatik, bolumen handikoak eta gainerakoak kenduta, eta ea erratuta egon behar naizen, eta gutxienez txostenean jasotzen ziren koadroetan agertzen ziren zenbakiak gutxi gorabehera banaka ditzala Udalbatzarentzat.

Alkatea: bai, beno, teknikariak aurkeztu zuen jadanik 2016. ekitaldiko likidazioari buruzko txosten nahiko mardula, baina beno, jakina, bera batzordera etortzeko prest dago erabat, eta lehen ere prest zegoen, bada, hurrengo batzordean, aipatuko dugu hori. Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:
Kontrako botoak:
Batere ez.
Abstentzioa:
Batere ez



Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- Udalerrri honetan abandonatuta edo alderrai dabilzan txakurrak jaso, zaindu eta mantentzeko zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioa egitea Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari.

“2017KO MARTXOAREN 29AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: Abandonatuta edo alderrai dabilzan txakurrak jaso, zaindu eta mantentzeko zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioa.

Ikusirik abandonatuta edo alderrai dabilzan txakurrak jasotzeko prozedura arautzen duen Diputatuen Kontseiluko abuztuaren 1eko 26/2013 Foru Dekretua eta zerbitzua emateko Udalen kudeaketa-gomendio bidezko adostasuna.

KONTUAN HARTUZ Artziniegako Udalak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari egindako Kudeaketa-gomendioa hitzarmen batean formalizatu beharko dela, non Nekazaritza Sailaren nahiz Artziniegako Udalaren konpromisoak finkatuko diren.

Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko 7/85 Legeko 47.2.h puntuan ezarritakoaren arabera kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela funtzioak edo jarduerak beste herri administrazio batzuetara eskualdatzeari buruzko akordioak hartzeko.

Azaldutako guztia oinarritzat hartuta, 2017ko martxoaren 29an egindako saioan Lurraldeko Informazio-batzordeak proposatu zuen honako

AKORDIOA:

Lehena.- Udalerrri honetan abandonatuta edo alderrai dabilzan txakurrak jaso, zaindu eta mantentzeko zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioa egitea Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari

Bigarrena.- Dagokion Hitzarmena formalizatzea abuztuaren 1eko 23/2013 foru dekretuan (2013ko abuztuaren 21eko 95. zenbakidun ALHAO aldizkarian argitaratua) ezarritako hitzarmen-ereduarekin eta baldintzekin bat etorritik. .

Hirugarrena.- Nekazaritza Sailari ematea zehapen-espeditenteak irekitzeko eskumena, jabeek txakurrak abandonaturik uzten dituztenean.

Laugarrena.- kudeaketa-gomendioa modu etengabean formalizatzea datozen ekitaldiei begira, hura ondorio gabe uzteko aukerarekin baldin eta Artziniegako Udalak Hitzarmena berariaz salatzen badu Kudeaketa-gomendioaren ondorioak hedatzen diren ekitaldiaren aurreko abenduaren 31 baino 3 hilabete lehenago”.

Alkatea: beno, dakizuenez, abandonatutako txakurrak jasotzeko zerbitzua orain arte Aldundiak ematen zuen, ez dago hitzarmenik, hitzarmena 2013. urtean zegoen onartua, baina dagozkio hitzarmenak sinatu gabe zeuden eta, hain zuzen, atzo Arabako Foru Aldundiaren gutun bat jaso genuen hitzarmenen onarpenaren inguruan galdetuz, eta adieraziz laster txakurrak soilik Arabako Foru Aldundiarekin kudeaketa-gomendioa sinatuta duten (hitzarmen bidez formalizatuta) Udaletako udal barrutietan jasoko direla.



Joseba Elejalde Ribacoba: bi kontu labur, lehen aplikatzen zen txakurren tasa aplikatu ahal daitekeen berriro. Udalerrian dauden txakur guztien gaineko kontrola izateko modu bat izango litzateke. Izan ere, hemen, ez dakit, agian ezeztatu egin ahal didazue edo esan ahal didazue nola kontrolatzen den zuk zure txakurrari txipa ezarri diozun ala ez. Ez dago modurik, ezta? Bada, uste dut, Udalaren barnean formula bat izatea on litzatekeela animalia guztiak zifratuta izateko, edo udalerriko txakur guztiak, eta norenak diren ere jakiteko, izan ere, pentsatzen dut animaliak dituen jende asko egongo dela, agian batez ere baserrietan eta halakoetan, eta gerta daiteke txakur horrek txipik izan ez eta une jakin batean abandonatuta agertzea. Eta gustatuko litzaidake batzorde batean gai horri heltzea. Joan den egunean atera zuen kontua Josebak eta uste dut ideia ona dela berriro planteatzea.

Alkatea: bada Euskadin bada txakurren erregistro bat, txipa duten txakurrak non dauden jakitekoa, noski. Jasotzeko zerbitzu bat badago eta txakurrak txipa badarama ez dago arazorik, jabeak ordaindu beharko du tasa. Arazoa txipik ez duten txakurrekin dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: horixe da arazoa, txakur bat jasotzea 500 euro kostatzen bazaigu, bada, urtean 5 edo 6 txakur izanez gero, bada, ederki gaude.

Alkatea: txipik ez daraman txakurra albaitaritza-zerbitzu batetik pasa ez den txakurra da.

Joseba Elejalde Ribacoba: asko eta asko egon daitezke.

Alkatea: batzordean aipatuko dugu hori.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik udalerrri barnean egon daitezkeen txakurren gaineko kontrola izateagatik esaten dut gehienbat, agian oker nago eta guztiak daramate txipa. Oxala.

Maria Lorente Burgos: legez derrigortzen da txipa izatea. Beste gauza bat da jendeak lege horri jaramonik ez egitea.

Alkatea: beno, baduzue ezer esateko?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Eskuratze zentralizatuko sistemara atxikitze dagokion Hitzarmena formalizatzea– Arabako Foru Kontratazio Zentrala.

“2017KO MARTXOAREN 29AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: Eskuratze zentralizatuko sistemara atxikitze Hitzarmena – Arabako Foru Kontratazio Zentrala.

Ikusirik, Arabako Foru Aldundiak, 1/2015 Foru Arau bidez, Arabako Foru Kontratazio Zentral bat arautzeko araudi bat onartu zuela.

KONTUAN HARTUZ eskuratze zentralizatuko sistemara (Arabako Foru Kontratazio Zentrala) atxikitze Hitzarmena Artziniegako Udalak formalizatu beharko duela, Arabako Foru Kontratazio Zentralaren bidez zehazten diren ondare eta zerbitzu edo hornidurak kontratatze aukera izanik hark enpresa esleipendunarekin egindako esparruko akordioetan adierazitako baldintza eta prezioetan.

Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko 7/85 Legeko 47.2.h puntuan ezarritakoaren arabera kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela funtzioak edo jarduerak beste herri administrazio batzuetara eskualdatzeari buruzko akordioak hartzeko.



Azaldutako guztia oinarritzat hartuta, 2017ko martxoaren 29an egindako saioan Antolaketa Informazio-batzordeak proposatu zuen honako

AKORDIOA:

Lehena.- Eskuratze zentralizatuko sistemara (Arabako Foru Kontratazio Zentrala) atxikitzeko dagokion Hitzarmena formalizatzea, 2015eko urtarrilaren 28ko 12. zenbakidun ALHAO aldizkarian argitaratutako 1/2015 Foru Arauan ezarritako hitzarmen-ereduarekin eta baldintzekin bat etorritz.

Bigarrena.- Atxikipenak Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango du ondorioa eta indarrean mantenduko da Arabako Foru Kontratazio zentralak esparruko akordioak egiten dituen bitartean, Artziniegako Udalak salaketa jarri ezean”.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- Udalbatzari Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2017ko 36 eta 53 bitarteko dekretuen berri eman du.

Arkaitz San Jose Martinez: errakuntza izango da, baina 47. zenbakiduna falta da. Ez dakit zenbakia zuzenean pasa egin ote den. Bederen nik neukan dokumentazioan. Agian zenbaketan jauzi egin da.

Ascension Hormazabal Meabe: agian jauzi egin da edo ezeztatu egin da, ez dakit.

Alkatea: beno, bada dekretu bat, 53. zenbakiduna, non luminariak aldatu ahal izateko aurrekontu-hornikuntza aurreikusten den. Jakina, gero kontratazio-prozedura egokia da. Eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da, baina aurrekontu-hornikuntza izateagatik da. Mugarri diru-laguntza eskatu zaio, baina EEE erakundeak ere % 20ean hasita izatea eskatzen dizu.

Berataratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

6.- Udal kudeaketaren kontrola.

Alkatea: gai batzuren inguruan hitz egin nahi nuen. Eguneko arretarako landa-zentroaren kontratuari dagokionez, dagoeneko eskatu diot Idazkaritzari garbiketaren bi ordu horietarako Pleguaren eraketa abian jar dadila, aholkularitza juridikoarekin hitz egin ondoren, Nievesekin, zerbitzua mantentzearen kalterik gabe, izan ere, lokalean garbiketa bat egin behar da.

Artekalen izan diren irristatzeei dagokienez, egia esan izan dira, eta besteren bat ere izan da, ez Artekalen, baizik eta Barrenkalen, zehazki, Iturralde tabernaren parean, iturriaren aurreaurrean. Bada, horri dagokionez, bada, teknikariekin elkartu ondoren bi aukera planteatu ditugu, bata matxardadura da eta bestea harlauza aldatzea zuzenean. Horren zimurra ez den harlauza ipintzea. Bada, matxardadurarekin saiatuko gara, ea zer-nolako emaitza ematen duen.



Gero, egoitzako edukiontzia kendu egin dira, behin-behineko hor daude, ateetako baten atzean, hemen ondoan dugun edukiontzia horiari dagokionez egia esatera arazoak izaten ari gara beste kokapen bat bilatzeko, zerbitzuarekin arazoak ditugu bai muerako atearen parean jartzeko eta baita irristaduran jartzeko ere, bada, horitik mugitzen saiatuko gara.

Otsati kaleko semaforoari dagokionez, aurreko batzordean aipatu nuen moduan, Gobernuari zen pausoak ematen, kableak ipintzen ari ziren, eta dagoeneko martxan da. Halaber, zebrabide honetan beste semaforo bat instalatzeko eskatu zen, Eusko Jaurlaritza hori begiratzeko izan da, bada, hasiera batean zilegi dela irizten dute, baina errepideekin hitz egin behar dute baldintzak ikusteko, semaforoa nola instalatu behar den ikusteko. Gero, Artekalako obrei dagokionez, bada, batzordean esandakoa gutxi gorabehera.

Urriari Aldundiarekin harremanetan izan nintzen neronek, eraikitzailearen aldetik Artekalen gauzatzeke zeuden obrak gaiari berriro heltzeko aukerarik ba ote zegoen ikusteko ahal den neurrian, eta hori berrikusten ari direla esan zidaten, eraikuntza egin zuen enpresaren abal bat dago, gertatzen dena da eraikitzailea une honetan hartzekodunen konkurtsoan murgildurik dagoela. Hemen ipini den ispiluari eta Jauregiko ispiluari dagokionez, bada jabearen erkidegoko presidentek jakinarazi zigun jadanik ispilua beraiek dutela. Beraz, Jauregiko urbanizazioaren mantenuaz arduratzen den pertsonarekin hitz egitea da kontua, ispilua instalatze aldera. Kaleetako plakei dagokionez, oraindik ez dira guztiak ipini, baina jadanik ipintzen hasita daude. Eta gero, pinu-beldarrari dagokionez, 2016. urtean tratamenduak egin dira Heros, Carruela eta Sandollan, ez da espero zen emaitzarik izan eta, horrenbestez, Aldundia aurten ere tratamendua egin ala ez balioesten ari da, izan ere, badirudi komenigarria dela saiatzea behintzat. Ikusiko dugu gero espero den emaitza lortzen den. Eta hori da pixka bat aurreko batzordetik aipatu nahi genuena.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, pozten gara, besteak beste, ispilua jarri delako gutxienez bi batzordetan eskatu ostean, eta ispiluaren inguruan Udalak zergatik ordaintzen duen galdetu nahi nuen.

Alkatea: arintasun kontuagatik ipini dugu, azkarragoa delako.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina ez dagokio Aldundiari ispilua hor ipintzea?

Alkatea: Momentuz, guk ipini dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, ulertzen dut esaten ari zarena, gertatzen dena da Udala 300.000 euro jartzen ari dela obra horrengatik, eta uste dut nahikoa arrazoi dela hori Aldundiari eskatzeko gauza horiek birjarri daitezela, eta ez hemen Aldundiak egin beharreko zereginetan aritzea.

Alkatea: beno, esan dizut, arintasun kontuagatik ipini dugula guk. Gero, bada, partida txiki bat da, kontuan izango dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, hemen dagoen ispiluari dagokionez, ez dakit kalekoa den edo errepidekoa den. Hori gehienbat. Kalekoa bada guri dagokigun gai bat da, errepidekoa bada esan duzun moduan Aldundiari dagokion gai bat da.

Unai Gotxi Kastrexana: han zegoen eta obrengatik kendu zen, hesi guztiak eta ibilbidean zeuden itxitura guztiak bezalaxe.

Alkatea: lehen ere guk jarri genuen.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina norabait joango zen ispilu hura.

Alkatea: bada, ispilu hura hautsi egin zen.

Unai Gotxi Kastrexana: eta, beno, dagoeneko obrak gaiari helduz, noiz amaituko dira espaloietan egiteko azken erremateak?

Alkatea: aurreko batzordean esan nitzun moduan, oraindik ez dago azken ziurtagiririk igorrita. Aldundia negoziatzen ari da, edo enpresa eraikitzailearekin likidatzen ari da, Moyua enpresarekin, haiek baitira obra gauzatu dutenak. Zehazteke dauden xehetasunak daude, eta momentuz ez dira gauzatzen ari, Aldundiarekin akordioa egon arte. Espero dugu akordio hori lehenbailehen iristea eta ez dakit kontua nola amaituko den.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, zergatik ari dira negoziatzen?

Alkatea: azken ziurtapenari dagokionez, gauzatu diren neurketa-unitateei dagokionez, edo sortu ahal izan diren obra edo ustekabekoei dagokionez... azken batean azken ziurtapen horretan



obren harrera proiektuan ezarritako baldintzatan jaso behar da eta, beno, hori normalean sartzen da...

Unai Gotxi Kastrexana: eta nik diot, ordurako etorri dira, esate baterako, eskolako zubiko hesia jartzera. Ez dakit zein desadostasun duten obren inguruan, oraindik ere mugitzen ari badira obra hasi zenetik dagoeneko 12 hilabete baino gehiago pasa direnean. Dagoeneko aurreikusitako epea igaro denean.

Alkatea: bada, oraindik hainbat xehetasun dituzte ixteke. Aldundiak eta enpresa eraikitzaileak.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, Udaletik eska zitekeen obrako azken erremateekin amai dezatela arin, ispiluaeren kontuarekin egin ez bezala, eta obra entrega dezatela. Ez dadin gertatu Artekalen gertatutakoa.

Alkatea: ez dugu halakorik, ez dut idatziz eskatu, ez dago irteera-erregistorik gutun batekin amai dadila eskatuz, baina, jakina, Aldundiarekin egiten ari naiz.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, dirudienez ez da aski ekite horrekin.

Alkatea: bada, nire ustez, nahikoa ekinez ari naiz ekiten. Beste kontu bat da emaitza ez ona izatea.

Joseba Elejalde Ribacoba: esaten duzunean, Iñigo, "azken ziurtapena negoziatzen ari dira", azken batean, zer da, diru kontua? Itxuraz, Moyua enpresa diru gehiago eskatzen ari da egindako lanengatik eta Aldundiak ez du gehiago ematen. Bederen hori ulertzen dut zuk diozunean "azken ziurtapena negoziatzen ari dira".

Alkatea: ez, desadostasuna dago neurketa-unitateekin lotuta, Moyuaren ustez egin duenari eta Aldundiak uste duenari buruz. Horixe da gertatzen dena.

Joseba Elejalde Ribacoba: badira gauzatzeke dauden neurketa-unitateak oraindik. Eta, ustez, eta bilkuran egon ez nintzelako diot ustez, baina hala dela jakin dut, Aldundiak bere garaian konpromisoa hartu zuen jabeakide batzuekin eta, batez ere, urbanizazio batekin, eta oraindik urbanizazioa zain dago egindako erreklamazioak noiz izapidetuko. Eta uste dut, eta proiektu hau onartu duten taldeetako batean nago ni, proiektua gauzatzeko, baina ezin gara egon zain Aldundia Moyuarekin hitz egitera eser dadin, edo Moyuak ez dakit zer, eta oraindik ere udalerrri honetako herritar guztiok izaten ari garen arazoak konpontzeko zain egon. Uste dut beligeranteagoak eta azkarragoak izan behar gara.

Alkatea: uste dut guztiok nahi dugula hau lehenbailehen konpontzea.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan duzun moduan, Udal honetatik Aldundira irten den gutunik ez dagoenez, nire ustez errepidea hobetzeko lanak nola amaitzen ari diren Udala ez dagoela adierazita gera dadin modurik onena da Udaletik, arintasunez, gutun bat igortzea, eta dagokion sailari eskatzea amaitzeke dauden obra guztiak gauza daitezela, eta errepidea amai dadila.

Alazne Lafragua Ureta: izan ere, edozein modutan, negoziatzeaz hitz egiten ari zinenean, obra amaieraren ziurtapena negoziatzen ari zirela, ni harrিতa geratu naiz, izan ere, obra amaierako ziurtapenean egiten dena da proiektuan jartzen zuena gauzatu egin dela ziurtatzea. Beraz, negoziatzen ari badira, zerbait ongi ez dagoelako da, zerbait gertatu da, ez baillizake horrela jokatu behar. Esanahi dut, arkitektoak edo obra amaierako ziurtapena egiteaz arduratzen den pertsonak egin behar duen bakarra da jaitsi, proiektuaren bila joan eta proiektuan zegoena eta gauzatu dena bat datozen begiratzea da. Eta ez dut ulertzen hor zer-nolako negoziazioa dagoen.

Alkatea: tira, 1.200.000 euroko obra batean, beno, bada beti egon daiteke... neurketa-unitateak balioetsi behar dira, gauzatu dena, eta horri dagokionez desadostasunak egon daitezke.

Alazne Lafragua Ureta: jakina, baina desadostasunak badaude, bada orduan proiektua ez da jarraitu bete beharko litzatekeen moduan. Zerbait oker gertatu da hori. Nire ustez, orain begiratzen ari badira, zerbait ez da egin gauzatu beharko litzatekeen moduan.

Alkatea: edo, agian, proiektuarekin alderatuta, ezberdinak ziren neurketa-unitateak egongo ziren, edo... baina 1.200.000 euroko proiektu batean hori gerta daiteke.

Alazne Lafragua Ureta: baina ez da negoziatzen, berrikusi egiten da.



Alkatea: tira, berrikusi egiten da, baina kontratistak berrikusten du, Administrazio kontratatzaileak berrikusten du, eta hor desadostasunak egon daitezke.

Joseba Elejalde Ribacoba: ulertzekoa da Iñigo obra batean hobekuntzak egotea, eta ziurrenik hori izango da, agian hori izango da egon diren arazoetan bat, obrak egin ahal izan diren hobekuntzen ondorioz interes-gatazka sortuko zen Aldundiaren, obraren zenbateko osoaren, eta Moyua enpresa une honetan kobratzea pentsatzen ari denaren edo, bere ustez, kobratu behar duenaren artean. Baina, azkenean, hemen beti berdinak gara ordaintzen dugunak, beraz, ahalegina egin behar da hori, bada...

Alkatea: ados nago. Agian erratu egin nahiz eta negoziatzea ez da hitz egokia. Iritzi aldetiko desadostasunak daude Moyuak egindakoari buruz dionaren eta Aldundiaren ustez egin denaren artean.

Joseba Vivanco Retes: amaitzeko kontu bakar bat, obra amaitzen denean, eta Udalaren aldetik, pentsatzen dut Udalaren aldetik izango dela, bada, udal langileek ahal dutenean garbi dezatela eta nahikoa txukun utz dezatela Ribacobako iturria, izan ere, oraintxe bertan hark hondakindegia dirudi, hara joan dira adarrak eta gainerakoak. Han dagoeneko egin denez, eta espaloia eta guztiori txukundu denez, bada, iturria ere... bada, ahal dutenean edo dena delakoan, garbitu bat eman diezaiotela.

Alkatea: bai, eta ea ura ere jar diezaiotegun.

Joseba Vivanco Retes: bai, gehienbat hara bota dituztelako... peluxezko panpina bat ere bazegoen. Azken batean, hara doa dena...

• Arkaitz San Jose Martinez: bai, nik ñabardura txiki bat, erabiltzaile modura. Eskolan konpondu den hondartegiaren gaiarekin, ez baitakit halako obrak eta antzekoak nola egiten diren, zuzendaritzarekin kontratua egiten den, OMR barnean egiten den edo nola egiten den... baina orube bera erabili da berriro, zapata bera, eta oso ongi dago zuzen geratzea, baina azkenean berriro, hau da, arazoetako bat zen putzuak egiten zirela, ez duelako drainatzen, besterik gabe. Halako gauzak kontuan hartu behar dira agian.

Alkatea: ez, hondartegian, sinpleki bada... oso gaizki zegoen...

Arkaitz San Jose Martinez: bai, apurtu egin zen.

Alkatea: ikastetxeko zuzendaritzarekin hitz egin genuen zer pentsatzen zuten ikusteko, hondartegia mantentzea egokia zen ala ez ikusteko. Eta egia esatera, tresna bat dela esan zidaten, haurrek asko erabiltzen duten entretenimendu bat dela, asko gustatzen zaiela. Horrenbestez, segurtasunagatik esan zen hondartegia kendu egingo zela eta, gero, udaberrian, zegoena ordezkatuko dugu. Eta lehen zegoena jarri da, besterik gabe.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, ados nago, oso erabilia da, kontua da drainatzen ez duenez, ez dakit zuzen geratzeko egokiena hormigoizko zapata bat den, baina drainatzeko ez behintzat. Euria egiten duenean dena putzuz beteta geratzen da.

Joseba Vivanco Retes: bide batez, hormigoizko zati hura oraindik aire zabalean dago?

Alkatea: bai, zati hura bai. Hori da obretako brigadari esan diogun gauzetako bat, ahal dutenean ken dezatela.

Joseba Vivanco Retes: ikastetxetik, Gurasoen Elkartetik, egon al da kexaren bat zati horrekin lotuta zehazki?

Alkatea: bada, nik uste dut Gurasoen Elkartetik zehazki ezetz. Agian gurasoren batek azalduko zuen kexa.

Joseba Vivanco Retes: Baina Gurasoen Elkarte modura edo zentro modura?

Alkatea: ez dut gogoan. Uste dut ezetz.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut ezetz, ez dut gogoan behintzat.

Joseba Vivanco Retes: nik egia esan, gai hori, beno, nik duela zenbait hilabete eraman nuen batzordera, esan nuen, hura gaizki dago, oraindik gaizki dago, badakit amaren bat kexu azaldu zela..

Alkatea: estali egin da, baina kontua da haurrek jolastu egiten dutela hondarrarekin eta...

Joseba Vivanco Retes: arreta ematen dit hura dagoen moduan egonik eta gurasoak zer-nolako txikikeriekin aztoratzen garen...

Alkatea: ahal dugunean kendu egingo da...



Joseba Vivanco Retes: esan nahi dudana da harritu egiten nauela zentrotik, Gurasoen Elkartetik, deus esan ez izana.

Alkatea: bada, ez dut gogoan.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut egon direla kexa indibidualak, baina ez dut uste gai horrek hartu duenik...

Joseba Vivanco Retes: bai, bai, ez, ez dut esaten idatzi bat edo dena delakoa, tira hau jorratu egin behar da, izan ere, haurren bat erori eta burua kolpatzen badu bada ez dakit, harritu egiten nau, baina tira.

Arkaitz San Jose Martinez: eta beste kontu bat, estrategikoagoa pixka bat, Gobernu taldetik esan zitzaigun 2017. urte honetan elkarteei diru-laguntzak emateko plan estrategikoa onartzeko konpromisoa zegoela. Lanketa hori derrigorrez egin behar dugu eta aurten egin beharko litzateke ezinbestean, eta gobernu talde modura hori gauzatzeko konpromisoa hartzen zenutela. Gai hori noiz jorratuko den galdetu nahi nuen, eta nola egingo den, izan ere, dagoeneko burututa ez egotearekin ados ez egotearen ondorioz, besteak beste, aurrekontuak onartzeari dagokionez posizio jakin bat hartu dugu ezinbestean, edo elkarteei hori azaltzeko bilkura bat egitea erabaki dugu eta ikusi dugu elkarteak prozesu horrekin interesatuta edo kezkatuta daudela, eta balizko plan estrategikoarekin haiek ere parte hartzea gustatuko litzaeke, batez ere, diru-laguntzak emateko baremoak ezartzerakoan, irizpideak, izan dadila ahalik eta gutxien kopiatu eta erantsi erakoa irizpidea, eta Artziniegako elkarteen berezko ezaugarriak ahalik eta gehien kontuan har daitezela.

Alkatea: jakina, kontuan izan behar dira. Parte hartu egin behar dute, bestela...

Arkaitz San Jose Martinez: eta datak? Gutxi gorabeherakoak esan nahi dut. Izan ere, gero, dagoeneko ez dira hilabete asko falta uda iristeko, eta uda ez da oso sasoi balioduna izaten, gero uda ostean ziurrenera oso lan latza izango da, eta ziurrenera 2018. urteko aurrekontuekin etorriko gara berriro ere diru-laguntzaren kontua berdin dagoela, horrenbestez...

Alkatea: nik uste dut uda iritsi aurretik dokumentu bat izan dezakegula.

Arkaitz San Jose Martinez: Ados.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik kontu bat aipatu nahi dut soilik, Gordexolako irtenguneei buruzko espediente fantasma horren ingurukoa. Egia esan arlo horretan egunero karpetara joan eta dokumentu berri bat agertzen da, edo dokumentu asko. Harrigarria iruditzen zait Udal batek ez izatea espediente osoaren kopia bat. Joan den astean Alkateak barrenak hustu zituen batzorde batean, nik bi hilabete daramatzadanean esanez Batzar Nagusietan nire taldeak Bizkaiko Foru Aldundiak Gordexolako Udalari errepidea lagatzeari buruzko txostena eskatu duela. Bada, lagatzeari buruzko hitzarmen hori duela urte askotik dago Udal honetan. Gertatzen dena da ez zegoela. Zergatik? Ez dakigu. Ez zegoen espedientearen barnean, uste dut Ekainek zuela, Udal honen kanpoko zerbitzu juridikoak, eta jakin nahiko nuke zergatik ez zegoen hitzarmen horren kopia bat Udalean, hori maiz gertatzen ote den, Gobernu taldek noiztik duen hitzarmen horren berri, inoiz ez baita batzorde batean gaia jorratu, zergatik ez den hitzarmen hori batzorde batera eraman, oso argigarria baita hori. Laugarren klausulan zera irakur daiteke: "aurreko lagapena gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiaren herri lan eta garraio sailak edozein kasutan eta ezohiko izaeraz, beharrezkotzat ikusten dituen egintza edo neurriak agindu ahalko ditu, betearazleak izango direnak berehala, zerbitzu publikoaren funtzionaltasunaren eta udalaz gaindiko arrazoia direla medio errepideak behar bezala ustiatzearen defentsan, Gordexolako Udalari egintza edo neurri horien berri eman beharko zaiolarik berehala horien inguruko ezagutza izan dezan". Eta bosgarren puntuan "hurrengo hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da, Gordexolako Udaleko bi ordezkari eta Bizkaiko Foru Aldundi Txit goreneko herri lan eta garraio saileko hiru ordezkari osatua, ordezkarietako bat batzordeko presidente izango delarik, sailak izendatuta. Bere eginkizunak hitzarmen honen interpretazioan eta hura betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztea izango da, eta bertan aurreikusten diren esku-hartzeak modu arruntean gauzatzeko direla ziurtatzeko jarraipena egitea, elkarren arteko informazioa zilegitzeko eta bakoitzak dituen konpromisoak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren irizpide eta moduak zehaztuz". Jakina, txosten hau, hitzarmen hau, 2005. urtekoa da. Orduan ez zegoen



errepideen foru arau bat irtegunerako arloan Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, baina 2010. urtean bai. Eta 4. artikulura jotzen badut, bertan argi eta garbi adierazten da "beharrekoak diren neurriak hartuko dira errepidea oztopo bat izan ez dadin zerbitzu publikoaren funtzionaltasunari dagokionez, etab.", nik uste dut hau Udal honetan izan bagenu, Zinegotzi guztiok buruhauste asko aurreztuko genituela. Buruhauste asko aurreztuko genituen, izan ere, bere garaian, administrazioarekiko auzia ipini zen beste bide batetik, beste kausa bat zela medio, azkenean kendu egin zena. Diru bat xahutu dugu eta gaur hemen hau topatu dugu, ezerezetik agertu dena. Ezerezetik agertu da, izan ere, pertsona batzuek, nik tartean, galdetu dugu espediente hori zergatik ote zen horren mehea, bertan soilik agertzen baitzen...

Alkatea: ea Joseba.

Joseba Elejalde Ribacoba: barkatu amaitu egingo dut eta gero hitza emango dizut, bestela kendu eta nik hitz egingo dut berriro... Artziniegako Udaleko udal teknikariaren hiru txosten eta gutxi gehiago. Horrenbestez, Udal honi eskatuko nioke gauzak egiten direnean, oposizioan gauden taldeoi beharrezkoa den informazioa eman diezagula, badakit bere garaian Alkateak auzialdia ezarri zuela, eskumen hori zuen Alkatetza Dekretuan hala jasotzen delako, eta ongi dago, baina gustatuko litzaiguke, niri behintzat bai, Udal honetan dagoen dokumentazio guztia zinegotzien eskuragarri izatea gustatuko litzaidake, bestela 12 urte igarotzen dira eta 12 urteren ostean topatzen dugu hemen lagatze bat dagoela, Udalaren eta Aldundiaren arteko lagatze-hitzarmen bat inork, nik behintzat ez, ezagutzen ez genuena, eta nahiko nuke jakin zuk, Iñigo, ba ote zenuen horren berri.

Alkatea: Joseba, hitzarmen hori 2009. urtean dago erregistratuta Artziniegako Udalean eta artxiboan jasotzen da. Ez dakit zer ikusi duzun baina hau espedientearen zegoen. Zer esaten ari zara? Hitzarmena ezkutatu egin dugula? Bada espedientearen egon da uneoro.

Joseba Elejalde Ribacoba: begira, esango dizut...

Alkatea: gauza bat esango dizut Joseba, 2009. urtetik.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esango dizut gauza bat, espediente hau ez zegoen Artxiboan, ez zegoen karpetan eta bestela Ascenek zuzendu nazala une honetan, duela bi hilabete hura berrikusten egon bainintzen, eta nire aurretik, Mateo Lafragua aritu zen berrikusten, eta Mateo Lafraguaren aurretik beste pertsona batek berrikusiko zuen eta ez zegoen, hau ez zegoen, Ekainek ekarri zizkigun bi karpetak ez zeuden bezalaxe.

Alkatea: Ekainek ekarritako karpeta ez zegoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ekainek ekarri zizkigun bi karpetak ez zeuden.

Alkatea: hori ez da... itxaron pixka bat. Hitz egin duzu, orain utzi niri.

Joseba Elejalde Ribacoba: hitz egiten utziko dizut.

Alkatea: hori ez zegoen eta Ekainek auzialdiaren dokumentazioa ekarri zuen. Bertan, funtsean, Gordexolako Udalak ekarri zuen espedientearen igorpena da azpimarragarriena, eta jakina hemen bada ez... hori auzialdian zegoen eta Udaletxean ez zegoen. Baina, berriro diot, hitzarmen hori 2009. urtean erregistratu zen, eta artxiboan bazegoen. Eta karpeta hori beti egon da eskuragarri eskatu duenarentzat.

Joseba Elejalde Ribacoba: loditzen eta mehetzen joango zen eskatzen zuenaren arabera, nik diotsut. Hiru pertsonen ari gara hitz egiten, hiru pertsonen...

Alkatea: beti egon da eskuragarri eskatu duenarentzat.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni espediente hori ikusi dugunak hiru pertsona gairela esaten dizut, nik dakidala, eta ez zegoen. Orain zuk diozu bazegoela, ongi, baina tira, XXXXXXXX falta zitzaizkidan hau ez zegoela esateko, nik eskatu behar diot...

Alkatea: barkatu, baina zer ari zara, Udalekoari irainka? Dokumentu hori ez zegoela esanez?

Joseba Elejalde Ribacoba: ni esaten ari naiz noiztik zenuten horren berri, eta nik oso argi dudanez noiz joan nintzen ikustera eta norekin ikusi nuen, izan ere, ni ez nintzen joan...ez, Idazkaria han zegoen, eskatu egin nion, elkarrekin berrikusi genuen, eta elkarrekin deitu genuen Ekainera, elkarrekin deitu genion Nievesi, eta Nievesek esan zigun bere bulegoan dokumentazio asko zegoela. Eta hurrengo astean edo bi astea ekarri zuen. Nik nahi dudana da Idazkariak egitea txosten bat adieraziz ni esaten ari naizena egia den ala ez, ni hemen egon nintzela, data begiratuko dut, karpeta berrikusten, eta karpetan ez zegoen dokumentazio hori. Dokumentazio



hau ez zegoen. Beste kontu bat da zuk esatea 2009. urtetik altan emanda dagoela. Horren berri izan beharko genuke? Bada bai, egun guztia egon beharko ginatke irteerak eta sarrerak ikusten, jakina. Baina egia da era berean Udalak berak, eta Alkatetzak berak, Udal honentzat lanean aritzeko zortzi ordu dituen hura baita, dedikazio eskusiboarekin, hau duela zortzi urte eman behar zigula. Kontua sinplea da "aizu, begira, hau, jakin dezazuen Gordexolako errepidearena, berekin bueltaka baikabiltza". Hots, zu hemen egon zara, eta ni hemen egon naiz azalduz Batzar Nagusietan txosten hau eskatu dudala eta ez duzu ezer esan, duela hilabete eta erdi edo bi hilabete, eta orain tupustean bazegoela esaten didazu. Bada, zuk duela bi hilabete bazegoela baldin bazenekien, hartu eta esadazu "Joseba, oker zaude, irakur ezazu espediente mutikoa, oker zaude eta, hor dago errepidearen lagatzeari dagokion hitzarmena" Eta ni lasaiago geratuko nintzateke, eta agian astolapikoaren aurpegiarekin, begira.

Alkatea: ez, ez...

Joseba Elejalde Ribacoba: izan ere, zuk nik ez nekien gauza bat zenekien. Baina badakit zuk nire antzera zenekiela, hots, ideiarik ere ez.

Alkatea: ez, ez Joseba, barkatu, barkatu...

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, bai Iñigo, bai eta bai, eta hau aurreko egunean izan banu Diputatua etorri zenean, hemen buelta asko aurreztuko genituen.

Alkatea: barkatu Joseba, baina zuk Bizkaiko Batzar Nagusietan eskatu duzula esaten zenuen hori errepidea lagatzeari buruzko espediente osoa da. Jakina, Foru Aldundiaren errepidearen saioko espediente osoa ez dago hemen. Baina hitzarmena eskatu izan bazenu, hitzarmen hori bazegoen. Hitzarmen hori bazegoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: Nik oso argi utzi dut, Ascen, Txosten bat nahi dut adieraziz Talde Popularrak...

Ascension Hormazabal Meabe: ez dakit nola egin ahal dizudan txosten hori, izan ere, ez zegoen, begiratu genuenean ez zegoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta Mateo Lafraguari galdetuko diot ea nahi duen adieraztea bera ere espediente berrikusten aritu dela, eta espediente horretan ez zegoela lagatze hau. Hori besterik ez.

Alkatea: espediente beti egon da, beti...

Joseba Elejalde Ribacoba: baietz, Iñigo...

Alkatea: beti nahi duenaren eskuragarri.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut esan ez denik egon beti eskatu duenaren eskuragarri. Ez dut hori esan. Ez nire hitzak aldatu. Esan dudana da hau, espediente horretako beste hainbat gauza bezala, ez zegoela, bere garaian. Orain azaldu bada.

Alkatea: Joseba, hori bazegoen. Egia esan ez dakit zein karpeta aritu zinen begiratzen etorri zinenean, agian ez zenuen espediente osoa ikusiko, agian ez zen osorik egongo.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, jakina, orain zazpi karpeta egongo dira. Bat zegoen, beteta zegoen, osorik, eta Udal honetako langileek, zuk espediente bat eskatzen duzunean, ez dute osorik ateratzen, atalka ateratzen joaten dira. Tira Iñigo, mesedez. Beraz, esaten ari zarenez, hemen dugun jendeak ez du gaitasunik pertsona batek espediente bat eskatzen duenean espediente osoa ateratzeko, eta soilik azkena ateratzen diote?

Alkatea: beti egon da karpeta bat, 1798 zenbakia zena.

Joseba Elejalde Ribacoba: karpetan ez zegoen.

Alkatea: 1798 zenbakidun karpetan espediente dauden dokumentuen zerrenda bat zegoen. Azaroan 2492 zenbakidunera pasa zen kaxa batera gaineratu eta sartzeko osorik, osorik txostenarekin, edo urtarrilean, Bizkaiko Foru Aldundiak bidaltzen duena. Beti egon da espediente osatzen duten dokumentuen zerrenda bat.

Joseba Elejalde Ribacoba: ados, bada, orduan guztiok gaude oker, zu izan ezik. Bikain, kito, ados.

Alkatea: udal artxiboa da oker ez dagoena, eta sarrera-erregistroa, eta sarrera-erregistro hori eta hura osatzen duten dokumentuen zerrenda agertu egiten dira, eta lagatzearen hitzarmena bazegoen, 2009. urtean erregistratuta zegoen, eta karpeta osatzen duten dokumentuen zerrendan, sakanguneen espediente, ere erregistratuta dago eta errepidea lagatzeko dokumentu hori agertzen da.



Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut esaten hori guztiori ez dagoenik eta horrela agertzen denik, Iñigo, ni esaten ari naiz hau guztiau, nire ustez, nik ulertzen dudanaren arabera, ez zegoela Udal honen eskura, ez zen kopia bat atera, Ekaineko kanpoko zerbitzu juridikoari eman zitzaion zuzenean, eta Ekainek izan ditu X denboraz, X urtez. Bertan izan ditu Udal honetako norbaitek haiengatik galdetu duen arte. Eta galdetu denean...

Ascension Hormazabal Meabe: Joseba, baina Ekainek koadernatutako bi karpetak ekarri zituen, eskusiboki, hori ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: Eta hau non zegoen?

Ascension Hormazabal Meabe: bada, ez dakit.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, bada, kito.

Alkatea: berriro diot, zuk eskatu zenuen, Bizkaiko Batzar Nagusietan lagatzearen espediente osoa eskatu duzu.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, eskatu egin dut, bai.

Alkatea: lagatzearen espediente osoa.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina horrek ez du kentzen, Iñigo, nik espediente osoa eskatu izanak Udal honetan zuk guztioi ez jakinaraztea, izan ere, hau uste dut argigarria dela, izan ere, Gasteizen herri lanetako Diputatuarekin izan ginenean, eraman izan bagenu, bada, dagoeneko zerbait irabaziko genukeen. Joan den egunean, Diputatua hona etorri zenean, horri buruzko aipamena egin bagenio, asko izango genuke irabazita, eta ez ginateteke bueltak ematen arituko, bururik gabeko oiloa bezala. Hori besterik ez da. Nik hitzarmen hau ez zegoela baino ez dut esaten, ez zegoen. Beste nonbait egongo zen, baina karpeta horretan ez zegoen.

Alkatea: uste dut Aldundiarekin bide onetik goazela oraintxe bertan, Arabako Foru Aldundiarekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dizut ezetzik esaten, baina Josuk hau jakin izan balu agian presio gehiago egin dezake, eta beste modu batera, ez dakit. Izan ere, azken finean, oso argi adierazten da 4. artikuluan, eta 5. artikuluan ere bai. Izan ere, nik ez dakit jarraipen batzordea noizbait elkartu den 2005etik 2017ra bitartean? Inork badaki? Inork ez. Bada, dugun dokumentazioaren arabera hasi beharko gara galderak egiten agian. Baina, noski, lana norbaitek egingo ote duen zain bagaude... izan ere, nik esan nuen Udalbatza honetan, nik esan nuen batzordean hiru taldeok hainbat galdera luzatzeko elkarrekin Bizkaiko Batzar Nagusietan. Beno, bada, bakoitzak zer egin behar genuen zehaztu genuen. Nik egin ditut, orain hau suertatu denean, batzorde hori zenbatetan elkartu den galdetzeko eskatu dudan moduan. Baina tira, espedientearen zegoen, besterik gabe...

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: bai, nik beno, gai honen harira, ezagutzen nauzuenok badakizue nire memoria nahiko eskasa dela, baina ni ere aritu nintzen duela zenbait hilabete karpeta begiratzeko, karpeta beheran eskatzen duzu, karpeta ateratzen dizute, dagoen dokumentazioa, eta ez dut gogoan Bizkaiaren aldetik Gordexolari errepidea lagatzeko hitzarmenaren dokumentua zegoenik. Ez zegoen, eta Josebak esaten duen moduan, nire ustez izan ditugun iritziak aski aldatzen dituen dokumentu bat da. Ez dakit, eta jakin nahiko nuke Arabako Aldundiak dokumentu horren baldintzak ezagutzen dituen. Nik, hasiera batean, ezetz esango nuke, izan ere, bilkura izan genuen egunean, Diputatua hona etorri zenean, bide arloko Zuzendaria ere bai, errepidearen lagatzea legezkoa ote zen galdetu zioten, eta bide arloko Zuzendariak esan zuen ez zela horretan sartuko ez zekielako errepidea zein baldintzatan laga zen, beraz ez dakit Aldundiak badakien hitzarmen horretan zer adierazten den, eta batez ere, puntu jakin batez, puntu hori interpretatzeari dagokionez, publikoa dela aipatzen denean, udalaz gairikoa, udalaz gairikoa dela aipatzen da, orduan noski, nik uste dut kasu honetan Aldundiak ere interpreta dezakeela puntu jakin horretan adierazten dena zer den. Horrenbestez, Aldundiak hitzarmen horren berri ez badauka, gustatuko litzaidake horren berri ematea, izan ere, gauzak aldatu egiten dira azken batean, izan ere, ez da presioa egiteko modu bat, baina Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeko modu bat da, ahalmena baitauka, eta ez da Gordexola azken hitza duena. Eta Bizkaiko Aldundiak esku hartu nahi badu, egin dezake, jakina.

Alkatea: nik uste dut Arabako Aldundia jakinaren gainean dagoela.



Joseba Vivanco Retes: bada, nik uste dut, guk Udalean bederen, Talde Popularrak eta guk bederen ez genuen horren berri, hots, Bizkaiko Aldundiari bete behar duena bete dezan, ez presioa egiteko, baizik eta eskatzeko tresna bat izatearen inguruan. Hau da, joan den egunean negoziatzeko premiaz hitz egiten aritu ginenean, eta bide arloko Zuzendariak esaten zuen moduan Bizkaiko Aldundiari karamelu bat emateari buruz, tira, agian karamelutik harago berak poltsa osoa atera eta mahai gainean jar dezala eskatu beharko zaio, izan ere, Bizkaiko Aldundiak ere asko du esateko eta ez da ibili behar... beno... hemen bakoitza bestearen eskumenean sartzen da. Ados nago, hau lagungarri izan behar da Bizkaiko Aldundiaren gai hau nola jorratu behar den ikusteko irtenbide batera iristeko, baina nik uste dut, azkenean, honek ahalik eta lasterren alde guztiontzat irtenbidea izango duela pentsatuz, uneren batean norbaitek hau guztiau nola izapidetu den azaldu beharko duela, izan ere, Epaitegian egin zen salaketa hark ez zuen ondorioirik izan. Badirudi, bi aldeen aldetik akordio bat egon zela, zeinaren arabera Epaitegietara eraman zen salaketa desegiten utzi baitzen, espedientearen ez zegoen dokumentu hau dugu eta, tupustean, dokumentuan agertzen da. Baina, euria euri gainean, izan ere, Epaitegietan Gordexolako Udalaren aurkako auzialdi hura udal zerbitzu teknikoen txosten batean oinarrituta kendu zen, inon agertzen ez zen txostena. Batzuek ez zeukaten, eta bere ordenagailuan egin zuenak ere ez zeukan, eta karpeta ere ez dago, eta oker ez banago, ez dakit dokumentu hori lokalizatu den ala ez, zeinaren arabera norbaitek erabaki baitzuen Auzialdi hura hiltzen utziko zela, eta inora iritsiko ez zela. Kurioski diot, izan ere, erabaki hura udal txosten batean oinarrituta hartu zen. Txosten hartan aipatzen zenez, sakanguneen kontuan, eta gainerakoan, legea betetzen zen, eta gero Bizkaiko Aldundiaren beraren txosten bat dugu, non esaten den 19 sakanguneetatik 13k ez dutela legea betetzen, gero araua ez dakit berantiarraioa izango zen ala ez, baina dokumentu hori ere ez da agertzen, horrenbestez, azkenean...

Alkatea: Bizkaiko araua berantiarraioa da. Txosten teknikoak 2011ko otsailean egindako bisita batekoa da, dagoen azkena, zerbitzu teknikoek igorritako azkena, eta uste dut txosten horretan ere Arabako Foru Aldundiko teknikariek bisita batean jaso zutena, eta izan dugun azken bilkuran helarazi zigutena, jasotzen dela.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina hor azken batean aparejadoreak hemen egindako txosten hori zegoen, agertzen ez zena. Ez zuen berak, ez zuen..., hau da, azken karpeta, izan ere, esan dudana moduan guztiok ikusi dugu karpeta, karpeta horretan dokumentazio ofiziala baino gehiago auzotarrek egindako protestak jasotzen ziren... Orduan, bada, nik uste dut garrantzitsuena hau guztiau nola bideratu behar den ikustea eta gaia konpontzeko lehenbailehen akordio batera iristeko ahalegina egitea izateaz gain, nik uste dut gero norbaitek hau guztiau nola izapidetu den berrikusi beharko duela.

Alkatea: berriro diot, berriro, dokumentazio hori erregistratuta zegoen, dokumentazio hori udal Artxiboan dagoen espedientearen barneko edukietan agertzen zen, eta dokumentazioa hori hor zegoen.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina zuk esan bezala, erregistroetan agertzen zen, baina karpeta fisikoki ez zegoela egiaztatu dugu eta tupustean orain karpeta azaltzen da. Nievesek, Ekainek, ez badu dokumentu hori gaineratu, nola demontre agertzen da karpeta. Hots, Ekainek ez du dokumentu hori gaineratu, hori argi dago. Dokumentu hori, guztiok ikusi dugu karpeta eta tira...

Alkatea: dokumentu hori Udaletxean egon da. Artxiboan egon da.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, bertan egon behar izan du, izan ere, erregistroarekin dator, baina esanahi dut karpeta hori berrikusi badute...

Alkatea: eta hori artxiboan egon da. Berriro diot, uste dut 1798 zenbakidun karpeta zela.

Joseba Vivanco Retes: berdin zait karpeta zenbakia. Guztiok joan gara karpeta berrikustera, baina inork ez dugu dokumentu hori aurkitu eta tupustean agertu egiten da, bada nahiko susmagarria da.

Alkatea: bada, dokumentu hori hor zegoen, eta jende orok izan du espediente eskuragarri nahi izan duenean behatzeko.

Joseba Vivanco Retes: baietz Iñigo, baina hemen eztabaidatzen ari garena ez da dokumentuaren eskuragarritasuna, erregistratuta ote zegoen ala ez, horren datarekin baitator, baizik eta dokumentua bazegoan ala ez. Eta handik pasa gara pasa garenak eta ez dugu ikusi.



Hots, bati pasa egiten bazaio, bada pasa egiten zaio, baina gehiago pasa dira, horrenbestez... horretara joan nahi dut, kontua ez da irekita ez zegoela ikusi nahi zuen jendearentzat.

Alkatea: tira, gutxi gorabehera esaten ari zaretena da artxibotik dokumentazioa kendu dela. Hori da esaten ari zaretena. Bada, horretan oso oker zaudete.

Joseba Vivanco Retes: Iñigo, ikusi duguna eta ikusi ez duguna esaten ari gara, ez goaz harago. Karpeta ikustera joan ginen, ez zegoen dokumentu hori, orain tupustean dokumentua dago. Adieraztea baino ez. Tartean pasa dena edo gertatu ez dena, edo bakoitzak egiten duen interpretazioa, aizu...

Alkatea: horretan oso oker zaudete. Karpeta horretan artxiboaren programan agertzen zen dokumentazioa jasotzen zen eta ikusi nahi izan duenarentzat eskuragarri izan da.

Joseba Elejalde Ribacoba: orduan gaiari buruz galdera bat, zuk Udal honetako arduradun modura, Alkate modura, karpeta hori ezagutzen bazenuen, eta 4. klausulari erreparatzen badiogu, zergatik ez dituzu neurri egokiak hartu eta ez dituzu publiko egin Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, eta Arabako Foru Aldundiaren aurrean? Izan ere, zurekin izan ditugun bilkuretako bakar batean ere eta izan garen sail ezberdinetan ere, nik sekula ez zaitut honetaz hitz egiten entzun. Eta nire ejertzitoan munizioa izango banu, egunero aterako nuke. Hau da, nik honen berri izan banu, ni egunero, bilkura guztietara, hau mahai gainean ipiniz joango nintzateke, gainera lehendabizi, 4. artikulua irakurriko nieke, goitik behera, 5. artikulua, goitik behera. Hori diotsut Iñigo, zuk honen berri bazenuen, eta guk tamalez ez genekien dokumentu hori hor zegoenik, gure errua, karpeta ongi ez berrikustegatik, edo sarrerak ongi ez berrikustegatik, nire errua baita, nik ere ulertzen dut, zinegotzi modura, nire ardura ere badela. Baina zuk bazenuen honen berri, zergatik ez duzu hau bilkura guztietan atera mahai gainera? Eta gomazko balatxoekin disparatu beharrean, zegatik ez dituzu bala bortitzak erabili? Izan ere, mutikoa, honekin, Bizkaiko Foru Aldundia leku onean utziko zenuen. Eta herritarren interes orokorrak defendatuko zenituzke.

Alkatea: beno, bada...

Joseba Elejalde Ribacoba: eta hori bai, nik egiten dizudan galdera bat da, izan ere, zuk horren berri bazenekien, nik bederen, Alkatea izango banintz, badakit zer egingo nukeen dokumentu honekin. Oso argi daukat, oso argi, oso argi. Eta ez nintzateke zain egongo oposizioak bilkura batean gaia atera arte.

Alkatea: bada, agian zuk interpretatuko duzu dokumentuak marjina uzten duela, gauzak bestela ikusteko modu baterako marjina. Bada, ikusiko dugu. Momentuz, Arabako Foru Aldundiarekin ari gara lanean Bizkaiarekin akordio batera iristeko. Gauza gaizki ateratzen bada, hori tresna bat izan daiteke.

Joseba Elejalde Ribacoba: tresna badaukazu dagoeneko. Ezin duzuna da beste tresna bat egin arte zain egon edo beste kalkulu bat egin ongi ala gaizki ateratzen zaizun ikusteko, beste tresna bat izateko zain egon... Iñigo begira...

Alkatea: hori zure iritzia da.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni tontotzat hartzea gaizki hartzen dut.

Alkatea: barkatu, ez zaitut tontotzat hartu.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk tresna bat badaukazu, erabili mesedez. Ez esan gaizki ateratzen bada gordean tresna hori duzunik, ez, tresna badaukazu dagoeneko, erabili. Ez egon zain beste inork zurrumbilo honetatik noiz aterako, zuk pertsonalki, ez zuk baizik eta Udal honek, nire ustez, beste neurri eta argudio batzuekin hasteko moduko dokumentazioa duenean. Hots, Josebak oso ongi esan du, nik ez dut errudunik bilatu nahi dagoeneko, 12 urte daramatzagu jadanik, baina behingoz, saia gaitzen ados jarri eta gauzak ongi egiten. Eta hau, hau niretzat oso garrantzitsua da. Oso garrantzitsua da. Lankidetzaz hitzarmen hori oso garrantzitsua da, nire ustez bederen, gauza asko argitzen dituelako, 12 urtetan, ez 12, 2009an, zortzi, alferrikako eginahalean aritu garelako.

• Joseba Vivanco Retes: edukiontzi horiaz aipatu duzunaren harira, edukiontzi horiari beste kokapen bat emateko arazoari buruz, besterik gabe gogorarazi Bildutik aurkeztu genuela duela zenbait hilabete proposamen bat Udalak berreskura zitzan aparkalekuaren alboan dagoen lursail horren jabetuna den finantza-erakundearekin bere garaian izandako negoziatioak, ez



dakit edukiontzien zonalde hori, aparkalekua eta gainerakoaz gain, berrantolatzeko irtenbideetako bat izango zen ala ez. Azkenean arazo horiek metatu egingo dira eta uste dut zonalde horretan ere irtenbide bat bilatzen hasteko ordua dela.

Alkatea: bai, eta lursail hori lagatzea ere uste dut planteatu zela. Aipatu zenutenez, duela urte asko planteatu zen, aurreko legealdian ere bai, legealdi honen hasieran Vital erakundearekin izandako bilkuretan nik ere planteatu nuen, eta berriro ekin diogu. Hots, jakina, ez diogu muzin egin horri, antzinatik datorren zerbait da eta, beno, ikusiko dugu lortzen dugun.

Joseba Vivanco Retes: bada, ea egia den.

• Joseba Vivanco Retes: eguneko Zentroan bi ordu horien garbiketa-zerbitzuaren inguruan aipatu duzunari dagokionez, bada hori, aipatu pozten naizela lau hilabete beranduago jaramon egin zaiolako, ez Bilduri, baizik eta Idazkaritzako txostenari, gauzak hasieratik egin behar ziren moduan egin behar direlako, eta nire aldetik, besterik gabe, garbiketaren faktura pasa duten hiru hilabete horiek ordaintzea derrigorrezkoa ote den jakitea. Ez dakit ordaindu egingo diren, ordaintzeko betebeharra dugun ala ez. Hori pentsatzen dut, ez dakit aholkularitza juridikoak aurreikusita izango duen ala ez, egin daitekeen ala ez, baina tira, jakin nahiko nuke hiru hilabete horiek ordainduko diren edo baldintzen plegu berria ateratzen denetik aurrera egingo den, edo nola geratuko den gaia. Izan ere, jakina, pentsatzen dut beste plegu batekin, beste enpresa bat atera daitekeela, ez dakit zein motakoa izango den, beste bat, orduan hiru hilabete daude hori, hiru faktura biratu daude garbiketa egiten ari den aurreko enpresarenak, ez dakit hori airean geratuko den, edo legez ordainketa egiteko betebeharra ote dagoen.

• Joseba Vivanco Retes: bai, gero gauza bat galdetu nahi nuen. Aldundiaren Dekretu bat irten da hirigintza-planeamenduko tresnak idazteko ordainsarietako laguntzetarako, 2017-2019 urteetarako, ez dakit Plan Orokorra berrikusteko gaiaren inguruan laguntzarik eskatzeko asmorik dagoen.

Alkatea: baina egin behar dugun lehen gauza pleguak onartzea da, hiru urtera atera da, beraz bi deialdi daude, maiatza eta urria. Diru-laguntzen Dekretuarekin arautzen dena da zu gauzatzen zoazen heinean justifikatzen zoazela, beraz aldez aurretik pleguak eratu beharrean gaude, esleipena egin eta lanarekin hasi. Izango dugun lehen justifikazioa % 10ekoa da, kontratua sinatzen denean. Baina egindako lanari dagokio. Eta Dekretuan % 100eko finantzaketa aurreikusten da.

Joseba Vivanco Retes: bai, hori bai.

• Joseba Vivanco Retes: gero, ez dakit kontsulta edo kudeaketaren bat egin den, Ingurumen Ministerioak Amurrio, Aiara, Audio eta Orozkoko kolektoreak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko aurreproiektua eta ikerketa informazio publikora atera ditu berriki. Ez da ezer aipatzen horietako bakar batean ere Artziniegari buruz, ez dakit Udalak kontsultaren bat egin duen, ez dakit, Ministerioari ez dut uste, ez dakit nori dagokion, ez dakit gurekin zerikusirik duen ala ez...

Alkatea: ez, hori Ibaizabaleko arroaren zatikoa baita, eta hori Ingurumen Ministerioaren konfederazioari dagokio.

Joseba Vivanco Retes: guri ez digu...

Alkatea: gu Cadaguako arroan gaude.

Joseba Elejalde Ribacoba: guri Eusko Jaurlaritza dagokigu.

Joseba Vivanco Retes: beste gauza bat ere bai, ez dakit uste dut hona ere iritsi zela, dokumentua, Aldundiaren txostena dagoeneko urarekin gaiarekin eta gainerakoarekin... saneamendu arloko nahiz beste arlo batzuetako beharrezanez buruz... badakit eginda duela niri gure talde batzarkideak bidali zidan... Ez dakit nola izendatu zuen, ez dakit zeren mapa...

Alkatea: bai, beste mapa hori... saneamenduaren eta horniduraren kontua...

Joseba Vivanco Retes: saneamenduari eta hornidurari buruzko ikerketa eta hori guztiori, orduan, bada, nik begiratu nuen, Erretako gordailua konpontzeko hobekuntza-premiak jasotzen ditu, -etik etorri behar duen hodi berria..., ez da eperik aipatzen, baina arreata ematen dit kontu



batek, Artziniegako saneamenduaren irtenbiderako gaiari dagokionez, Hondakinen Uren Araztegi modura barneratzen da, baina izartxo txiki batekin dator, pentsatzen dut zerbait berezia dela esan nahiko duela eta kolektorea izango dela, baina gero dokumentu osoan azkenean egiazko irtenbidea zein den zehazten ez denez, bada, ez dakit hori bidali den eta Udaletik oharren bat egin behar ote den...

Alkatea: bada, dokumentua bera ez da iritsi.

Joseba Vivanco Retes: niri bidali didate eta badaukat, dokumentu guztia. Ez da eperik aipatzen, hori ez, Arabako Koadrila bakoitzeko lehentasunak aipatzen dira, lehentasunak bai aipatzen dira, nire ustez hemen lehentasunak, ez dakit jakina dena ala ez, hor Laudio eta Amurrio direla..

Alkatea: nik uste dut iritsi zela...

Joseba Vivanco Retes: baina, noski, Artziniega izartxo batekin dator...

Alkatea: ingurumen arloko inpaktuen ikerketari jartzeko alegazioetarako dokumentazio modura iritsi da edo antzeko zerbait, eta beno, ni Jose Ramon Toñarekin hitz egiten aritu nintzen, Kakuko agentearekin, esan nion "aizu, hau alegazioak egiteko plana da" eta esan zidan "ez, ez hau ez da, hori beranduago iritsiko da".

Joseba Vivanco Retes: nik bederen dokumentu trinko samarra daukat, eta azkenik guztia Koadrila eta planen arabera dator. Baina epeei buruz ez da ezer aipatzen, eta azkenean hori da kontuan hartzekoa.

- Joseba Vivanco Retes: bidali zidaten, uste dut..., bai Alkatetzatik otsailean Zaraobe Institutuaren eskaera bat igorri zitzaigun bi hezkuntza-eskaintza berri babesteko, bi ziklo berri, baina ez, izan ere, dokumentazioan nuen, baina uste dut Artziniegako udalaren babesa igortzeari buruz ez dugula ezer jorratu.

Alkatea: uste dut modu informalean aipatu genuela eta...

Joseba Vivanco Retes: nik ez dakit, ez nuen gogoan, eta otsailetik hor nuenez...

Alkatea: bai egia da jakinarazi nuela "aizu, Udaletik egon daiteke nolabaiteko interesa, bidali ezaguzue dokumentazioa sinatu ahal izateko".

Joseba Vivanco Retes: baina, tira, Udalen babes edo sostengua datorrenez, baina ez nuen gogoan batzorderen batean gerora aipatu genuenik.

Alkatea: modu informalean aipatu genuela uste dut.

Joseba Vivanco Retes: goi mailako bi ziklo berri babesteko Zaraobe Institutuan. Horrenbestez, bada tira, ez dakit aztertzeke daukagun gai bat den ala ez. Izan ere, ez dut gogoan Udaletik Zaraobe institutura zuzenean paper bat igorri genuenik ados gauden ala ez adieraziz.

Alkatea: nik bidali nuen posta elektronikoko bat, esanez "aizu, hau ongi, baina ikus dezagun"

Joseba Vivanco Retes: ez dagoenez ezer, erregistroa otsailaren 9koa da, bada ez dakit pasa eta airean geratu zitzaigun gauza bat ote den.

- Joseba Vivanco Retes: gero, abenduan, gure taldetik gobernuko taldeari eskatu genion ahal dela urteko lehen seihileko honetan Zaballa Mendebaldeko, Zaballa Ekialdeko industrialdeetako lurzoru urbanizagarriaren egoerari buruzko azterketa bat egiteko, hemen iazko bilkura batean auzotar batek egindako eskariaren harira, ez dakit abenduan edo azaroan izango zen, orduan beno, dagoeneko hiru hilabete pasa dira, laugarrenera bidean goaz, jakin nahiko genuke udal gobernuaren aldetik prestutasunik dagoen bederen suposatuko lukeenari buruz azterketa egiteko, zonalde hori nola dagoen, eta ordaintzen ari diren gaia aldatzeak zer suposatuko lukeen, edo guzti horri buruz Udalak suposatuko lukeenari buruzko azterketa egin dezala, ez naiz ari hitz egiten Udalak hartzen duen erabakiari buruz, baizik eta gutxienez horrek zer suposatuko lukeen jakiteko. Horrenbestez, beno, auzotar batek egindako eskaria izan zen, joan den astean berriro galdetu ziguten ea zerbait egin zen, esan genuen guk idatzi bat erregistratu genuela eskariarekin, momentuz, guk dakigula, ez da ezer egin, horregatik helarazten dizuet, ea udal gobernuaren aldetik prestutasunik dagoen gai horrekin zerbait egiteko.

Alkatea: ez, oraindik aztertzeke dago.



• Joseba Vivanco Retes: eta, azkenik, Baserrietara doan bidearen, gordailura doana, gaiari buruz galdetu nahiko nuke, ez dakit oraintxe bertan moztuta dagoen ala ez, edo erdi irekita edo erdi txita jarraitzen duen, orduan galdetu nahi nuen zenbat denborako aurreikusten den, oinezkoentzako sarbiderik izango den edo soilik ibilgailuentzako den, eta gero, baita ere, ixteko zein irizpide hartu diren oinarritzat. Hori diot, izan ere, ez dakit, ez zait egokia iruditzen martxoaren 30ean eskari bat egotea obren sustatzailearen aldetik, non inolako argudiorik eman gabe, hots, zergatiaren argudiorik jasotzen ez duen paper batekin, adierazten den “efektiboa izan beharko du”, hau da, “beharko du”, nor behartzen? gaurko egunetik, hiru hilabetez. Hots, sinestezina iruditzen zait. Auzotar bat irudikatzen dut, Artekale edo Barrankaleko jabekideen komunitate bat irudikatzen dut esanez, Udalean idatzi bat sartuz, eta adieraziz gaurtik aurrera kalea itxiko dutela hiru hilabetez. Bada ez dakit, pentsatzen dut esango zitzaiola “aizu, nor zarela uste duzu”. Orduan, jakina, ez dugu ikusi Udalaren aldetik eskaera horri erantzun zaionik. Bada martxoaren 31ko ohar bat, hau da, hurrengo egunean, non zuzenean ohartarazten den itxi egingo dela ibilgailuentzako sarbidea ez da eperik aipatzen. Esan nahi dut, zertan oinarrituta? Zertan oinarritzen da horretarako? Ez dut ulertzen.

Alkatea: ea, urbanizazio-obrako proiektuaren exekuzioaren arabera, bada, haiek bidea ixtea planteatzen dute, eskari hori sartzen dute, guk berehala Osakidetxari, suhiltzaileei eta Ertzaintzari ohartarazten diegu jakin dezaten, eta auzotarrei ere bai, jakina. Ematen duten epea hiru hilabetekoa da, eta mozketari dagokionez, esaten dutenez segurtasunarekin lotutako arrazoiak direla medio, mozketari erabatekoa izatea aurreikusten dute. Talde teknikoa, Javier zehazki, haiekin hitz egiten aritu da, beharrezkoa denean auzotarrei pasabidea ziurtatzeko irizpidearekin, izan ere, badira San Antoniotik igaro ezin diren ibilgailuak, eta ahal den neurrian oinezkoentzako pasabidea mantendu eta mozketari ahalik eta laburrena izan dadin denboran. Badakit Javier urbanizazio-lanez arduratzen ari diren pertsonekin hitz egiten aritu dela. Beraiek aipatzen duten arrazoa segurtasuna da eta beraiek ez direla erantzule egiten beno, obrarekin lotutako arrazoiak direla medio oinezko bati edo ibilgailu bati pasabidea ireki ahal bazaio, makinak daudela lanean, zuloak egiten ari direla eta haiek ez zutela bidearen segurtasuna bermatzen.

Joseba Vivanco Retes: bai, bai, hori guztiori uler dezaket, baina ez dut ulertzen esaten ari zarenez Javier egiten ari den lan guztiori, ez dakit zertaz ohartarazi egin dela, lan hori ulertzen dut, gerora egiten ari da. Hots, hilaren 30ean eskaera bat dago, hilaren 31n ohar bat dago eta ez dakit hori nonbait jarri dena ala ez, baina itxita egongo dela aipatzen da, ondorioz, lanketa hori gerora egiten ari da. Orduan, egia esan, ez dut ulertzen. Zenbaitetan alferrik kexatzen gara, baina azkenean uste dut tontolapikotzat hartzen gaituztela.

Alkatea: ez, agian ahoz jakinaraziko zuten aurretik ixteko asmoa zutela, koordinazio-arazo bat egon da...

Joseba Vivanco Retes: baina ez da horrela, ordea, izan ere, ahoz jakinarazi eta ez dakit zer, eta gero ez justifikatzea, izan ere, izan daiteke arazo bat dagoela, nik uler dezaket lan batzuk egin behar dituztela, han lanketa batzuk egin behar dituztela, baina ez dute justifikatzen ere hiru hilabete izan behar direnik, jar zezaketen sei hilabete edo hilabete bat, baina ez dut ulertzen zertan oinarritzen diren hiru hilabete jartzeko, baietz esaten da, ez dakit arkitektoak esan duen “ah, beno, obra hauek hiru hilabetekoak dira, edo esaten duen aizu ez, zulo hau egiteko behar duzun denbora da...” izan ere ez, horregatik, esan nahi dut ez dudala ulertzen, azken finean funtzionatzen dugun eran gero beranduago goaz, eta uste dut ezetz, edo gauzak ongi egiten dira edo ez dira egiten, bestela gero gertatzen dena gertatzen da eta badakigu zer gertatzen den. Horrenbestez, bada beno, esan nahi dut ez dudala ulertzen hori egin izana. Aizu idatzi honekin bazatoz bada, begira, aurkeztu idatzia aurkeztu behar duzun moduan, uste dut jendeari ohartarazteko denbora emateko adina denborarekin aurkeztu behar direla halako gauzak, ikusteko zein alternatiba dauden, eta gero arrazoiak badauka onartu egiten zaio eta kito, zentzuzkoa baita hori, baina uste dut gauzak ez direla horrela egiten. Eta gero halako gauzak erortzen dira eta, azkenik, badakigu zer gertatzen den, dena libre da, eta ez, gauzak ez dira horrela. Ongi egin daitezela. Nire aldetik besterik ez.

• Joseba Elejalde Ribacoba: nik pare bat gauza ditut hemen. Aldizka eta azkenaldian udalerrian gertatzen diren ekintza bandalikoaren inguruan, eta parrokiaren atzean dauden



auzotarrek egindako kexei buruz, zein esku-hartze aurreikusten diren. Ertzaintzari helarazi zaio gaia jarraipena egin dezan, etor daitezten, normalean asteburuetan egon ohi da mugimendu gehien itxuraz.

Alkatea: bai, Ertzaintza jakinaren gainean dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: Badakigu, gutxi gorabehera, zein talde dabilen?

Alkatea: tira...

Joseba Elejalde Ribacoba: ideia bat izan daiteke ezta? Galdera bat da...

• Joseba Elejalde Ribacoba: Garai familiarren proposamena azaldu nahi nizuen pixka bat, badakit orain jorratuko dugula gaia Gobernu Batzordean baina hona ekarri dut, hemen esaten dut oso erabaki garrantzitsua delako, Udal honek hartu behar duen berehalako erabaki bat da, horrenbestez, gustatuko litzaidake, eta udalerriko bi auzotar baino ez ditugu aurrean, azal dezazula pixka bat zein izan zen Garai sendiak Artziniegako Udalari eta Artziniegako herritarrei egindako proposamena.

Alkatea: beno, bada, proposamena, beno, zuek ere badakizue, izan ere, batzordean ere jorratu genuen, Udalari eskuineko eraikina lagatzea da, Aterpetxearen Zonaldea zena, eta pilotalekuaren atzeko zonaldea. Haiak Ayala etxea mantendu nahi dute Ayala etxearen alboko eraikinak erauziz, eta esku-hartze zonaldeko eraikigarritasuna mantenduz. Hori da egin duten proposamena. Jakina, balioetsi egin behar da eta egin daitekeen ala ez ikusi behar da.

Joseba Vivanco Retes: bai, izan ere, oker oroitzen ez badut, batzordean edo batzarrean egin beharreko banaketari buruz ere hitz egin zen, eta pentsatzen dut hori guztiori, zerbitzu teknikoan aldetik, lotu egin beharko dela zilegi den ala ez ikusteko, aurretiko urratsak eman aurretik.

Joseba Elejalde Ribacoba: argi dago erabaki hori ez dela hartzen...

Joseba Vivanco Retes; bai, Udal modura hartzen dugun erabaki politikoaz gain, lege kontuaz ari naiz.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez gehiegi atzeratu behar ez den erabaki bat da, bestela esaten ari zarena gertatzen zaigu, lau hilabete, hiru hilabete, sei hilabete eta trenak alde egin digu. Orduan, agian, Garai sendiak orain esaten dizu ezetz, lehen zena dagoeneko ez dela, orduan erabakia, teknikoki egin badaiteke, ekonomikoki bideragarria bada, eta guztiok ulertzen badugu, nik nire ikuspuntutik behintzat bai, ondareari begira aisialdirako zonalde bat edo eman nahi diogun erabilerekin, bada Artziniegako Udalarentzat funtsezkoa dela, batez ere, duen inguruneagatik, oinplanoan 250 edo 300 metro dituen eraikin bat delako, beste gauza bat da gerora iriztea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den ala ez, baina..., baina esan nahi dut ez dadila atzeratu, ez gaitzen hemen astez aste ahalegintzen...

Alkatea: bai, eta ikus ditzagun baldintzak eta nola gauzatu behar dugun, izan ere, igogailurik gabe geratzen bagara, edo hiru solairutarako sarbiderik gabe geratzen bagara eta gero aparteko eskailera bat egin behar badugu, bada, baldintzak ez dira berdinak.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, nik, alde... ez dakit eraikin horrek zein balioespen izan dezakeen, baina udalerrian eraikin bat txertatuta izateari utzi behar badiogu eskailera simple baten erruz, tristea litzateke, tristea litzateke. Eskailera edo igogailu baten erruz bada, tristea litzateke. Izan ere, ez dakit eraikin horrek milioi erdi euro, 300.000 euro edo milioi bat euro balioko duen, izan ere, eraikinari kiroldedia gehitu behar zaio.

Alkatea: esan dizudana da lagatzearen baldintzak zein diren balioetsi behar dela. Beste gauza batzuen artean hori bera dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo esan nahi dizut tristea izango litzatekeela. Ni esaten ari naiz tristea izango litzatekeela, besterik gabe. Ez zaitetz nirekin haserretu.

Alkatea: ez, ez, ez, baina esan egiten dizut.

Joseba Elejalde Ribacoba: eskailera edo igogailu baten erruz Udal honetan ez bagara horretarako gai, tristea litzatekeela esaten dut, besterik ez.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarrak eta hoge minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.